



Arantzazun bizi: iragana, orainaldia eta etorkizuna zer?



Komunitateak, lekuak, erronkak eta berrikuntza.

Uzt. 22 - Uzt. 23 2024

Kod. K11-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 22 - Uzt. 23 2024

Kokalekua

Arantzazulab, Gandiaga Topagunea

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Webgunea

<https://arantzazulab.eus/>

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Zer dauka Arantzazuk? *Nor* da Arantzazu? *Nor gara* Arantzazu?

Arantzazu euskal jendartearentzat erreferentziatzeko espazioa da, eraldaketarako energiaren konfluentziaren gunea izan baita 500 urtez. Arantzazuren inguruan urtez urte eratuz joan den gizarte-sare anitza da, askotarikoa, gizarte-esparru desberdinetan txertatua. Arantzazu herri-tokia da, herriarentzakoa. Eta gutxi dira gurean elkarri etorkizun-galderak egiteko toki aproposak.

Aurten, lehenengo aldiz, UPV/EHUK eta Arantzazulab-ek Uda Ikastaro bat antolatu dute bertan, Arantzazuren eta Euskal Herriaren etorkizuna lotzen dituen bidexkak, naturalak zein kulturalak, elkarrekin aztertzeko. Aratz-Aizgorri parke naturalean kokatuta, 5 mendeko ondare aberatsaz gain, santuarioak badu esanahi berezia euskal kulturari: erabakigune eta elkargune garrantzitsua izan da, bertan hainbat ezagutzak, arteak, tradizioak eta berrikuntzak bat eginez.

Hutsuneak duen abegikortasuna bilatuz, adituekin eta arituekin jorratuko ditugu galderak. Gandiagaren eta Azurmendiren belaunaldiaren ahaleginak jarraipena izango du? Mundu konplexu, arrotz eta zabalean, bakardadea eta isolamundua nola gainditu ditzakegu, lankidetzaren forma berriak nola sortu? Ba al dugu gure herriaren biziraupenerako sustraiko gaien inguruan anbizioz aritzeko eta pentsamendu berria sortzeko Arantzazu bezalako gunerik? Zer erakusten digu zientziak lankidetzaren sorreraz eta beharraz? Zer Arantzazuren naturaz eta historiaz?

Etorkizun-erronken aurrean, non dago Arantzazu?

Bada, beti egon den tokian: aniztasunaren ertzak josten, elkar-hizketarako, elkar entzuteko egokiera pribilegiatu eta paregabea eskaintzen. Askotariko eraldaketa sakonek bizitzaren ardatzak (balioak, komunitatea, kultura eta jasangarritasuna) bidegurutzera eramanez dituzte. Mendeetan zehar sortu dugun GU handi horrek berriro erantzun beharko ditu etorkizunari egin nahi dizkiogun galderak.

Uda Ikastaro hau galdera horietan esperientzia murgiltzailea izango da, kultura jarduerak eta bisita gidatuak elkarrekin txertatuz. Lehenengo egunean Arantzazuk duen ezagutzan sakonduko dugu, arteak zein zientziatik, Arantzazu den hori bizitzeko eta berak gure baitan eragina izateko. Bigarrenetan etorkizunari begira jarriko gara, beste behin ere, bere buruari oinarrituz galdetu behar diolako gure herriak, etorkizun-ohartzunean murgildu behar dugu: eta horretarako, euskal herrigintzarako etorkizun-galdera gakoan inguruan elkarrekin erantzuteko toki paregabea eskaintzen du Arantzazuk.

Erakusketa berezia: Orbelaun Taldea + gonbidatuak

Arantzazun ospe handiko artea dago: Saenz de Oiza eta Laorga, Muñoz, Oteiza, Chillida, Eunate, Egaña, Basterretxea... izen, izan eta lan handi horien itzalpean naturala da txikia sentitzea. Baina Arantzazuk era eta tamaina askotariko arte esperientziak eskaintzen ditu oraindik ere, eta sorkuntzak ez du etenik. Izan ere, Arantzazu bera da ekosistema bat sorkuntzarako egokia, denontzako baliabide eta inspirazio iturri.

Erakusketa honetan biltzen dira Arantzazuren inguruan sortutako hainbat eskultura eta pieza grafikoak, batzuk orain arte erakutsi gabeak. *Arte efímero, collage, found art...* dena Arantzazuko kultura eta natura ondareak emandakoarekin eginda.

Lan gehienak Orbelaun taldekideek eginak dira. Angel Mari Milikua, Imanol Artola, Iñaki Jauregialzo "Jaltzo" eta Esteban Kerexeta eskultoreek osatzen dute kolektiboaren izena dator Bitoriano Gandiagaren jaiotza baserritik. Guztiak autodidaktak dira eta sorkuntza gaitasuna Arantzazun kokatu dute, artea zentzu zabalean ulertuz. Kolektiboaren lanak ikusgai izan dira Zegaman, Donostian eta Oñatin egindako erakusketetan.

Belaunaldi eta lanbide desberdinetako beste artisten lanekin osatu da 16 piezako erakusketa. Haien artean, artista liburu bat dago: Arantzazuko Brebiarioa. Ahiku (Arkitektura eta hiri kultura) elkarteak egindako lana da eta oinarritatuta dago Basilikaren arkitekturan eta Gandiagaren poemetan.

Eta hemen ikastaroaren nondik norakoak jasotzeko sortu dugun [kontakizuna](#).

Ostatua

Izena ematen duen edonork, ikastaroaren kodea emanaz, Arantzazun ostatua erreserbatu ahal izango du, uik@basquedestination.com posta elektronikora idatziz, mezuan IZENA/ABIZENAK, sarrera/irteera data eta pertsona kopurua adieraziz. Basque Destination bidaiaria-agentzia interesdunarekin harremanetan jarriko da eskatutako erreserba errazteko.

Helburuak

Arantzazuko ondare materiala eta immateriala bertan ezagutzea.

Arantzazuko ekosistemaren historian eta naturan murgiltzea.

Arantzazuren etorkizuna herrigintzarekin eta kulturgintzarekin duen lotura esploratzea.

Etorkizuneko ikuspegiak sortzeko Frantziskotarren eta egungo gazte erreferenteen artean garatutako esperientziak ezagutzea.

Bitoriano Gandiagaren bizitza eta lana ezagutzea.

Joxe Azurmendiren filosofia hedatu eta eztabaidatzea.

Bakardadearen erronka gizarte berrikuntzatik nola heldu eztabaidatzea.

Zientzia eta pentsamendu garaikidean lankidetzaren garrantzia ulertzea.

Lankidetzan oinarritutako estrategiak lantzea.

Lankidetz



Programa

2024-07-22

09:00 - 09:10	Erregistroa
09:10 - 09:30	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Naiara Goia Imaz Arantzazulab - Zuzendaria Joxe Maria Arregi Guridi Arantzazuko Frantziskotar Probintziaren ordezkaria Agustin Erkizia Olaizola UPV/EHU - Errektoreordea Eider Mendoza Larrañaga Gipuzkoako Foru Aldundia - Diputatu Nagusia
09:30 - 10:30	“Nahi ez den bakardadea: HARIAK eta BBK-Kunaren proiektuak” Aitor Sorreluz Aguinaga Arantzazu aldizkaria - Zuzendaria Ainhoa Becerra Sotelo ADINBERRI - Berrikuntza arduraduna
10:30 - 11:00	Atsedena-kafea
11:00 - 12:00	“Gandiagaren “Hiru gizon bakarka”k 50 urte” Antonio Casado da Rocha UPV/EHU Paulo Agirrebalzategi Jakin - Ohorezko kidea
12:00 - 13:00	“Ni-tik gu-ra: gizaberea, narrazioa eta lankidetzaren eboluzioa “ Arantza Etxeberria Agiriano UPV/EHU - Irakasle Osoa Juan Ignacio Pérez Iglesias Eusko Jaurlaritz / Gobierno Vasco - Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza sailburua
13:00 - 13:30	Sintesia
16:00 - 17:00	“Arte erakusketaren irekiera eta kafea” Carmiña Dovale Carrión Ahiku (Arkitektura eta hiri kultura) elkarte
17:00 - 18:00	Publikoari irekitako arte-erakusketa (Basilikako Kriptan): Orbelaun Taldea eta gonbidatuak
18:00 - 19:00	Basilikari bisita gidatua

2024-07-23

09:00 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Antonio Casado da Rocha UPV/EHU - Ikertzaile Nagusia Naiara Goia Imaz Arantzazulab - Zuzendaria
09:30 - 11:00	Mahai ingurua: “Arantzazu-ren etorkizuna herrigintzarekin eta kulturgintzarekin duen loturatik, Pello Sarasuaren “Arantzazu” dokumentalean parte hartu dutenen artean” Iñaki Luzarraga Gomez Arantzazulab komunikazio arduraduna - Moderatzailea Lorea Agirre Dorronsoro Jakin - Zuzendaria Xabier Peritz Mendizabal EITB - Kazetaria

11:00 - 11:30

Atsedena

11:30 - 12:45

Mahai ingurua: “Euskal Herriaren etorkizuna Arantzazu-tik: Behar al dugu gure herriaren biziraupenerako sustraiko gaien inguruan herri anbizioz aritzeko eta pentsamendu berria sortzeko gunerik?”

Antonio Casado da Rocha | UPV/EHU - Moderatzailea

Urko Aiertza Azurtza | TMelab - Zuzendaria

Gorka Espiau Idoyaga | Agirre Lehendakaria Center - Zuzendaria

Mireia Zarate Aguirre | Sabino Arana Fundazioa - Lehendakaria

Naiara Goia Imaz | Arantzazulab - Zuzendaria

12:45 - 13:50

“Euskozenoa: Etorkizuna egin egiten da - Aro berrirako ikuspegiak sortzeko Frantziskotarren eta egungo gazte erreferenteen artean garatutako esperientzia kontatzea eta bideo-elkarrizketak aurkeztea”

Olatz Ibarretxe | DOT - Zuzendari sortzailea

13:50 - 14:00

Sintesia

16:00 - 17:30

Mahai ingurua: “Espiritualitatearen azpiegitura garaikideak: Arantzazu aztergai “

Iñaki Martínez de Albeniz Ezpeleta | UPV/EHU - Irakaslea

Onintza Etxebeste Liras | Mondragon Unibertsitatea - Irakaslea

18:00 - 20:00

Ibilaldi gidatua: Artasoko basoan barna

Zuzendaritza



Antonio Casado da Rocha

UPV/EHU

Filosofian doktorea, ikertzailea eta irakaslea da Gipuzkoako campusean (EHU). AKTIBA-IT taldeko ikertzaile nagusia da. 2002tik 2012ra Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Etika Asistentzialeko Batzordeko kidea eta idazkaria izan zen. 2008an Victor Grífols y Lucas Fundazioaren Bioetikako Ikerketa Saria jaso zuen. 3 seiurteko ditu ikerkuntzan, eta 7 doktorego tesi zuzendu eta defendatu ditu. 3 liburu argitaratu ditu egile bakar gisa eta 2 liburu kolektibo argitaratu ditu. 2012tik 2017ra bere fakultateko Ikerketa eta Mugikortasuneko dekanordea izan zen, eta 2017tik 2021era, EHUko Gipuzkoako campuseko Unibertsitate Hedakuntzako zuzendaria. Filosofiaren arloko argitalpen akademikoez gain, Bioetika, Psikologia, Zuzenbidea eta Soziologiako nazioarteko aldizkarietan ere argitaratu du.



Naiara Goia Imaz

Arantzazulab

Naiara Goia Imaz Arantzazulab-eko zuzendari nagusia da, eta gizarte berrikuntza laborategia diseinatzeko, abian jartzeko eta garatzeko ardura du, 2020ko udazkenetik. Berrikuntzan aditua, 20 urteko esperientzia dauka bertan eta nazioarte mailan proiektu estrategiko konplexuen koordinazioan eta jakintza-alor anitzeko pertsonen zuzendaritzan. Arantzazulab-en hasi aurretik, MONDRAGON Korporazioan ibili zen hainbat urtez, enpresen eraldaldaketarako berrikuntza teknologiko eta sozialaren alorrean ekimenak gidatzen. Demokraziaren eta gobernantzaren berrikuntza, sareko lana sustatzea eta eraldaketarako estrategiak eraikitzea dira bere interesetako batzuk eta bere lanaren oinarria. Euskal Herriaren etorkizunaren inguruko gogoeta gune ezberdinetan parte hartzen du. Unibertsitate ezberdinekin kolaboratzen du, baita ere, hizlari eta irakasle moduan. Naiarak Telekomunikazio Ingeniaritzan goi-mailako titulua du (UPV/EHU - ENST Bretagne) eta Negozioen kudeaketan MBA baten jabe da. Modu osagarrian, bere ibilbide profesionalean zehar formakuntza ezberdinak jaso ditu, Gobernantza ireki eta kolaboratiboan (UNED), Lidergoan, Komunikazio publikoan, Berrikuntza eta Prozesuen ebaluazioan, batzuk aipatzearren.

Irakasleak



Paulo Agirrebalzategi



Lorea Agirre Dorronsoro

Jakin, Zuzendaria

Lorea Agirre Dorronsoro (Beasain, 1968) Informazio Zientzietan lizentziatua da eta Antropologia Kulturean master duna. Lanbidez, kazetaria da, Argia, Euskaldunon Egunkaria eta Berria-n aritutakoa urte luzez, eta egun, Jakin aldizkariko zuzendaria da. Irakasle ere izan da Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultatean eta baita EHUn ere. Bere ikerketa gai nagusiak hizkuntza, kultura eta komunitatearen arteko loturak dira, betiere genero ikasketen markoan. 'Trikua esnatu da. Euskaratik feminispora eta feminismitik euskarara' (Susa, 2019) da bere azken liburua, Idurre Eskisabel Larrañagarekin lau eskutara idatzia. 'Gezurra ari du. Egunkariaren itxieraren kronika' eta Rosa Luxemburg eta Joxemi Zumalabereren biografia bana ere argitaratuak ditu



Urko Aiertza Azurtza

TMeLab


Urko Aiertza Azurtza Telesforo Monzón (TM eLab) ideia-laboregiteko zuzendaria da bai eta Olaso Dorrea Fundaziokoa. Madrilén senatari izan zen (2011-2015) eta Senatuko Justizia, Kanpo Arazoetako, Iberoamerikako eta Batzorde Iraunkorreko bozeramaile izan zen. 2017az geroztik, Europako Bakearen Institutuko (EIP) aholkulari seniorra da Bruselan, baita nazioarteko hainbat erakundetako kontseilaria ere. Zuzenbidean lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), eta Conflictology masterra du Universitat Oberta de Catalunya-n (UOC). Gaur egun, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko kidea da, eta abokatu-bulegoa du Donostian.



Ainhoa Becerra Sotelo

Adinberri Fundazioa, Responsable de innovación

Industria eta Hiri Soziologian lizentziatua da EHUUn (1999). Adinekoentzako Zentro eta Zerbitzuen Zuzendaritza eta Kudeaketako Graduondokoa, ISED - Vic. Unibertsitatean (2004) eta Osasun Publikoko eta Kudeaketa Sanitarioko masterra, INESEM Enpresa Ikasketen Europako Institutuaren eskutik. (2014-2015). Ekintzaileritza esparruan eman zituen bere lehen urratsak eta Letralan, enpresaren ko-sortzailea izan zen (1999) berrikuntza sozial, sanitario eta teknologikoaren alorrean eta bereziki e-health eta telemedikuntza proiektuak bultzatuz. Ondoren (2016-2019), Aubixa Fundazioko proiektu eta programen zuzendaria izan zen, zahartzearen eta Alzheimerren eta beste demenzien esparruan. 2019tik Adinberri Fundazioko (GFA) Berrikuntza arduraduna da.



Antonio Casado da Rocha

UPV/EHU

Filosofian doktorea, ikertzailea eta irakaslea da Gipuzkoako campusean (EHU). AKTIBA-IT taldeko ikertzaile nagusia da. 2002tik 2012ra Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Etika Asistentzialeko Batzordeko kidea eta idazkaria izan zen. 2008an Victor Grífols y Lucas Fundazioaren Bioetikako Ikerketa Saria jaso zuen. 3 seiurteko ditu ikerkuntzan, eta 7 doktorego tesi zuzendu eta defendatu ditu. 3 liburu argitaratu ditu egile bakar gisa eta 2 liburu kolektibo argitaratu ditu. 2012tik 2017ra bere fakultateko Ikerketa eta Mugikortasuneko dekanordea izan zen, eta 2017tik 2021era, EHUko Gipuzkoako campuseko Unibertsitate Hedakuntzako zuzendaria. Filosofiaren arloko argitalpen akademikoez gain, Bioetika, Psikologia, Zuzenbidea eta Soziologiako nazioarteko aldizkarietan ere argitaratu du.



Carmiña Dovale Carrión

Carmiña Dovale Carrión (Donostia, 1982) es arquitecta y doctora en arquitectura por la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de San Sebastián (UPV/EHU). En 2017 defiende su tesis doctoral titulada "Estrategias formales en el lenguaje compositivo de Eduardo Chillida" y en 2020 publica el libro

“Geometría del orden” coeditado por Eunsa y el Museo Chillida Leku. En la actualidad es profesora en Aldapeta Maria Ikastetxea.



Gorka Espiau Idoyaga

Agirre Lehendakaria Center

Agirre Lehendakaria Centerreko zuzendaria da. Berrikuntza sozialeko plataformetan aditua. J.W. McConnell Family Foundation 2016-2018 irakasle bisitaria, Montrealeko Centre for Interdisciplinary Research-en (CIRM-McGill University), Young Foundation-eko senior Fellow eta La Caixa Work4progress fundazioaren programako aholkularia. Halaber, Social Innovation Laboratory Koop (SILK) erakundearen kide sortzailea da. Kazetaritzan lizentziatua EHUn. Aurretik, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren aholkulari gisa lan egin zuen Bake eta Bizikidetzaren arloan, eta elkarriketarako eta adostasunerako gizarte-sareko Elkarriko kide izan da. Hain zuzen, euskal gatazka ardatz duten hainbat dokumentalen egilea da: “Pluja Seca” eta “Parlem els ulls” kataluniar telebistak ekoiztutako dokumentalak, besteak beste.



Arantza Etxeberria Agiriano



Onintza Etxebeste Liras

Onintza Etxebeste Liras

Ikerlari, irakasle eta artista den aldetik, euskal kultur nortasunaren inguruan testuingururutzen da bere lana. Arteko Gradua burutu zuen (2011-2015) eta baita Ikerketa eta Sormena Artean Masterra (2015-2016) ere, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Bere doktorego-tesia, "Baserrri hedatua. Jardute sinbolikotik artekaritzen eremura" (2022an euskaratua) euskal baserriaren kultur-nortasuna narratiba eta identitate berritzaileetarako artikulazio-zentru gisa hartzen du, artea transmisioa bera prozesu berritzaile, aktibo, sozial eta parte-hartzaileetan suspertzeko ardatz gisa hartuta. Bere ikerketa artistikoak diziplinartekotasuna hartzen du esanahien ekoizpena berrasmatzeko espazio gisa, eta

narratiba sozio-kultural eta kolektibo berriak analizatzeko, errepresentatzeko eta artikulatzeko artekaritzen bilaketan datza, afektu eta materialitate desberdinak harilkatzean.



Naiara Goia Imaz

Arantzazulab, Zuzendari Nagusia

Arantzazulab-eko zuzendari nagusia da, eta gizarte berrikuntza laborategia diseinatzeko, abian jartzeko eta garatzeko ardura du, 2020ko udazkenetik. Berrikuntzan aditua, 20 urteko esperientzia dauka bertan eta nazioarte mailan proiektu estrategiko konplexuen koordinazioan eta jakintza-alor anitzeko pertsonen zuzendaritzan. Arantzazulab-en hasi aurretik, MONDRAGON Korporazioan ibili zen hainbat urtez, enpresen eraldaldaketarako berrikuntza teknologiko eta sozialaren alorrean ekimenak gidatzen. Demokraziaren eta gobernantzaren berrikuntza, sareko lana sustatzea eta eraldaketarako estrategiak eraikitzea dira bere interesetako batzuk eta bere lanaren oinarria. Euskal Herriaren etorkizunaren inguruko gogoeta gune ezberdinetan parte hartzen du. Unibertsitate ezberdinekin kolaboratzen du, baita ere, hizlari eta irakasle moduan. Naiarak Telekomunikazio Ingeniaritzan goi-mailako titulua du (UPV/EHU - ENST Bretagne) eta Negozioen kudeaketan MBA baten jabe da. Modu osagarrian, bere ibilbide profesionalean zehar formakuntza ezberdinak jaso ditu, Gobernantza ireki eta kolaboratiboan (UNED), Lidergoan, Komunikazio publikoan, eta Prozesuen ebaluazioan, batzuk aipatzearren.



Olatz Ibarretxe

Olatz berrikuntzan eta inpaktu sozialean aditua da, azken urteetan gazteen inguruko ikerketa berritzaileetan murgilduta egon da, demokraziaren inguruko gazteen pertzepzioetan adibidez. Etorkizuneko estrategien ikerketa kontzeptu eta narratiba sortzaileekin lotzen du abilezia inpaktua izango duten produktu eta zerbitzu berritzaileak diseinatzeko. dot. kooperatibako sortzaile eta zuzendaritza taldeko kide eta Next Generation Foresight practitioner fellow. dot.en diseinu eta berrikuntza ardatz dituzten proiektuak aurrera eramaten dituzte erakunde eta enpresa ezberdinekin, produktu eta zerbitzu berritzaileak sortuz hamar urte baino gehiagoko ibilbide oparoarekin. dot.en Euskozenoa den proiektu propioa garatu dute, etorkizuneko euskal nortasuna nolakoa izango den imajinatzekeo plataforma. Hainbat herritar talde ezberdinekin hausnarketa prozesuak aurrera eraman dituzte euskal nortasunaren pertzepzio eta identifikazioak harakutzen gero sormen lanetan gauzatzekeo.



Iñaki Luzarraga Gomez

Arantzazulab



Iñaki Martínez de Albeniz Ezpeleta



Juan Ignacio Pérez Iglesias

UPV/EHU

Catedrático de Fisiología en la UPV/EHU. Enseña fisiología animal en la Facultad de Ciencia y Tecnología, y ha investigado en fisiología de animales marinos. Cátedra de Cultura Científica (2010-), director (2010-). Jakiunde (Academia de las Ciencias, de las Artes y de las Letras) (2012-), presidente (2020-). Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral de Humanidades, Cultura, Arte y Ciencias Sociales 2019. Vicerrector (1997-2000) y rector (2004-2009) de la UPV/EHU. Organismos: Consejo de Administración de EITB (1999-2014), en representación de la UPV/EHU. Consejo Asesor del Euskara (2000-2002). Consejo de Coordinación Universitaria, designado por el Senado (2002-2004). Patronato de la Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU (2009-2021) Patronato de Ikerbasque, Fundación Vasca para la Ciencia (2013-2016) Comité Científico del ISEI-IVEI (2014-), presidente (2014-) Consejo Científico y Tecnológico de la FECyT (2015-2020). Comité Asesor de The Conversation España (2018-), presidente (2021-).





Jon Sarasua Maritzalar

Garabide elkarte. Huhezi fakultatea, irakaslea eta kulturgilea

Komunikazio Zientzietan Doktorea da. Kazetaritza eta Soziologia ikasketetan ibilia. Bertsolaritzaren munduan oso gazte hasi zen eta urte askotan bertsolari gisa aritu ondoren, 2000 urtean utzi zion bertsolaritza publikoari. Mondragon Unibertsitatean aritu da hogeitaz urtez, arlo sozioekonomikoan eta kultura arloan. Herrigintzako hainbat alorretan taldeak sustatzen jardun du, Lanki, Garabide, Sorguneak eta Bagara bezalako egitasmoen sorreran. Autoeraketa, gizarte ekonomia eta hizkuntza arloak landu ditu egitasmo horietan, eta berauei lotutako nazioarteko zubiak. Hainbat liburu eta argitalpen egina da hizkuntza nahiz kultura arloan eta gai sozio-ekonomikoetan.

<http://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/jon-sarasua>



Mireia Zarate Aguirre

EAJ.PNV

1986an jaioa Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna Kontuen Ikuskaritza masterduna Legebiltzarkide ohia EBBren idazkaria Sabino Arana Fundazioaren Presidentea



Aitor Sorreluz Aguinaga

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-07-22 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	50,00 EUR
UIK euskaraz	-	71,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	61,00 EUR
Matrikula exentzia	-	50,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	61,00 EUR
Elkar	-	61,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	61,00 EUR
Donostia Kultura	-	61,00 EUR

Kokalekua

Arantzazulab, Gandiaga Topagunea

Arantzazu Auz., 1, 20567 Arantzazu (Oñati).

Gipuzkoa